

**BILBOKO GAZTEEI BURUZKO
TXOSTEN PANORAMIKOA**

**Bilbao Hiri Gazterako
Abiapuntuko adierazleak**

2022KO OTSAILA

Sarrera

Txosten honen helburua da **Bilbao Hiri Gaztea 2021-2024 eraikitzeko abiapuntu izatea**. Etorkizuneko Gazte Planaren modu berean egituratutako **93 adierazle** hautatu dira, tresna interesgarriak baitira gazte-politikak orientatzeko eta konfiguratzeke, bai eta etorkizunean izango duten eragina ebaluatzeke ere.

DEMOGRAFIA - 3. orrialdea

EMANTZIPATUTAKO GAZTERIA - 16. orrialdea

GAZTERIA AKTIBOA - 48. orrialdea

KONPROMETITUTAKO GAZTERIA - 67. orrialdea

Honako hauek izan dira informazio-iturri nagusiak: Gazteen Euskal Behatokia (GEB), Eustat, INE, Lanbide eta Eusko Jaurlaritzako hainbat sailerako estatistika-organoak, udal-sailez gain.

Dokumentua irakurtzeko oharra:

Eskura dagoen informazioaren arabera, adierazleek bizi-zikloen arabera bereizketa (adina), sexuaren arabera eta lurraldeen arteko konparazioa (Bilbo, Bizkaia, EAE, EB) islatzen dituzte.

Bilboko datuak jasotzeko eman zaio lehentasuna beti, eta, hiriri buruzko informazio espezifiko ez duten adierazleentzako, hurbilen dauden lurralde-eremuetara jo da (Bizkaia, EAE).


Batzuetan, Bilbori buruz informazio ez duten adierazle batzuk zenbatespenekin osatu dira. Datu horiek Bizkaiko datua oinarritzat hartuta sortu dira beti, hiriburuak lurraldeko gainerako lurraldeekiko duen pisu handia kontuan hartuta, eta txosten honetako adierazle gehienetan Bilbok eta Bizkaia duten alde txikiarekin bat etorritik. Zenbatespenek ikono hau daramate:



0. DEMOGRAFIA



- **Bilbok 50 mila gazte** (15-29 urte) **inguru ditu**, hau da, biztanleria osoaren % 14 gaztea da.
- **Jaiotza-tasari buruzko adierazleen arabera, gazteen kopuruak behera egingo du etorkizunean.** Haur gutxiago jaiotzen dira emakume bakoitzeko, eta amatasuna gero eta beranduago gertatzen da.
- Hala ere, **migrazio-saldo positiboak hiria gaztetzen laguntzen du.**





0.1 BIZTANLERIA


1. Gazteriaren indizea

Definizioa: 15-29 urteko biztanleriaren ehunekoa biztanleria osoarekiko.
 2021. urtea, Bilbo. EB27ko datua 2020koa da.




% 14,3


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera




Lurralde-eremua

Bilbo	Bizkaia
% 14,3	% 13,6
EAE	EB 27
% 13,9	% 16,5

Bilboko biztanleriaren % 14 gaztea da, eta datu hori Bizkaiko eta EAeko batez bestekoaren zertxobait gaintetik dago. Biztanleria gazteagoa da gizonen kasuan emakumeen kasuan baino.

2007 eta 2021 artean, gazteen indizeak bi puntu egin du behera, baina azken hiru urteetan nolabaiteko susperraldia gertatu da.

Barrutiak



Ez dago alde handirik Bilboko 8 barrutietako gazteen ehunekoen artean. Gazteena Otxarkoaga-Txurdinaga da (% 15,6), eta zaharrena Begoña (% 12,4).


Auzoen arabera informazioa dokumentu honen 1. eranskinean dago.

2. Bilboko gazte-kopurua


*Definizioa: 15 eta 29 urte bitarteko gazte-kopurua Bilbon.
2021. urtea, Bilbo.*

49.689


Bizi-zikloa



Bilakaera



Barrutiak



Bilbon 49.689 gazte bizi dira guztira. Bilakaerari dagokionez, 2007tik 2017ra bitarte beherakada handia izan da, eta badirudi azken laurtekoan alderantzizkoa gertatu dela.

Barrutiei dagokienez, Ibaiondo da gazte gehien duen barrutia, eta Basurtu-Zorroza gutxien duena.

Auzoen arabera informazioa dokumentu honen 1. eranskinean dago.



0.2 JAIOTZA-TASA


1. Ugalkortasun-tasa

Definizioa: 15-29 urteko amek izandako haur-kopurua, adin-talde horretako mila emakumeko. 2019. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari buruzko datuak EAEkoak dira.




19,8

Bizi-zikloa



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE	UE 27
19,8	21,5	45,9

Jaiotza-kopurua oso txikia da mila emakume gazteko (urtean 20 eskas), eta zatirik handiena helduenen artean (25-29 urte) ematen da.

Tasak beheranzko joera argia erakusten du 2006-2019 aldian. Horren beste adierazle esanguratsu batek, jaiotza-tasa gordinak (mila biztanleko jaiotza-kopurua adierazten du), oso jaitsiera kezagarria izan du azken 10 urteetan: 2011n 8,2koa izan zen, eta 2021ean 5,6koa.


2. Amaren batez besteko adina lehen seme-alaba jaiotzean

Definizioa: amak duen adina bere lehen seme-alaba jaiotzean.
2019. urtea, Bilbo. Bizkaiaren bilakaera.



31,7

Bilakaera



Lurralde-eremua

Bilbo	Bizkaia
31,7	32,1
EAE	Egoera
31,9	31,1

Lehen haurra jaiotzean, amaren batez besteko adina 31,7 urtekoa da. Amatasuna etengabe atzeratu da 2007-2019 aldian.

Iturria: CEB eta INE.

3. Batez besteko seme-alaba kopurua emakume bakoitzeko

Definizioa: eremu jakin bateko emakume batek bere bizitza emankorean izango lituzkeen seme-alaben batez besteko kopurua. 2019. urtea, Bilbo.

1,15

Lurralde-eremua

Bilbo	Bizkaia	EAE
1,15	1.2	1,3

Bilboko emakume gazteen batez besteko ondorengo-kopurua 1,15ekoa da, eta datu hori Bizkaiaren eta EAEn azpitik dago. Bilbo urrun dago populazioa birjartzeko ezarritako helburutik (2,1).

Iturria: CEB eta INE.


4. Lehen aldiz ezkontzeko batez besteko adina

Definizioa: eremu jakin bateko pertsona bat ezkontzen denean duen batez besteko adina. 2018. urtea, Bilbo.




37,6

Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bilbo	Bizkaia	EAE	Egoer a
37,6	35,3	35,2	36,7

Bilbon lehen aldiz ezkontzeko batez besteko adina 37,6 urtekoa da, eta datu hori Bizkaiaren, EAEren eta Estatuaren datuen gainetik dago. Amen batez besteko adinaren kasuan gertatu den bezala, ezkontzeko batez besteko adina ere atzeratu egin da.




0.3 MIGRAZIO-MUGIMENDUAK

1. Atzerritar jatorriko gazteriaren indizea

Definizioa: 15-29 urteko atzerritar jatorriko pertsonen ehunekoa, Bilbon bizi diren atzerritar guztien artean. Atzeriko nazionalitatea duen biztanleria eta gaur egun nazionalitate espainiarra duen baina atzerrian jaio den biztanleria hartzen dira kontuan. 2021. urtea, Bilbo.

% 24,7


Bizi-zikloa



Lurralde-eremua

Bilbo	Bizkaia	EAE
% 24,7	% 25,1	% 24,2

Barrutiak



Bilboko atzerritar jatorriko biztanleen ia % 25 gaztea da, hots, EAEkoa baino zertxobait handiagoa (% 24). Atzerritar jatorriko gazteriaren indizea biztanleria osoarena (% 14,3) baino 10 puntu handiagoa da. Beraz, immigrazioak Bilbo gaztetzen laguntzen du.


Barrutiei dagokienez, Uribarri da atzerritar jatorriko gazteen ehunekorik handiena duena (% 27), eta Abandok du txikiena (% 23).

2. Atzerritar jatorriko gazte-kopurua


Definizioa: Bilbon bizi diren 15-29 urteko atzerritar jatorriko gazte-kopurua. 2021. urtea, Bilbo.

12.557

Bizi-zikloa



Barrutiak




Bilbon 15-29 urteko 12.557 atzerritar bizi dira, hau da, hiriko gazte guztien % 25 atzerritarra da.

Jatorri atzerritarreko pertsona gehienak 25 eta 29 urte bitartekoak dira (% 45).

Barrutiei dagokienez, Ibaiondo da atzerritar jatorriko gazte gehien duena, eta Otxarkoaga-Txurdinaga gutxien duena.

Nazionalitate nagusiak



Atzeritar jatorriko gazteen nazionalitate desberdinak alderatzean, bereziki nabarmentzen dira kolonbiarra (% 15,1) eta marokoarra (% 11,6).

Ondoren Nikaraguako (% 9,5) eta Boliviako (% 8,8) gazteak daude. Venezuela, Paraguai, Txina, Ekuador, Errumania eta Brasil % 5 inguruan edo ehuneko horretatik behera daude.


3. Gazteek atzerrira emigratzea

Definizioa: atzerrira emigratzen duen 15-29 urteko pertsona-kopurua. 2020. urtea, Bizkaia.




238

Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
238	525

2015etik, urtean Bizkaiko 300 gaztek emigratzen dute atzerrira, batez beste. Gehienak emakumeak dira (% 59).



Kalkuluen arabera, 2020an Bilboko 76 gaztek emigratu zuten atzerrira, kontuan hartuta hiriko gazteek Bizkaia osoan hartzen duten ehunekoa.


4. Gazte etorkinen itzulera-tasa

Definizioa: atzeritik itzultzen diren EAEn jaiotako 18-34 urteko gazteen ehunekoa, atzerira emigratzen duten adin bereko gazte guztiekiko. 2020. urtea, Bizkaia.




% 46,6

Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 46,6	% 51,2

Bizkaitik atzerira emigratzen duten gazteen erdia inguru itzuli egiten da. Emakumeen kasuan, ehunekoa nabarmen txikiagoa da (% 39).


5. Gazteen migrazio-saldoa

Definizioa: 15-29 urteko pertsonen immigrazioen eta emigrazioen arteko aldea. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




1.881


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
1.881	3.495

Gehiago dira Bizkaira immigratzen duten gazteak lurraldetik ateratzen direnak baino; 2020an zehazki 1.881 izan ziren. Saldo positibo horren ondorioz, gizonak gehiago dira (guztizkoaren % 53).

Bilakaerak erakusten du migrazio-saldoak aldaketa handiak izan dituela azken 15 urteetan, eta jaitsiera handia izan duela azken urtean COVIDaren pandemiaren ondorioz, saldoa positiboa izan den arren.



Kalkuluen arabera, 2020an Bilboko migrazio-saldoa 587 pertsonakoa izan zen, kontuan hartuta hiriko gazteek Bizkaia osoan hartzen zuten ehunekoaren pisua.

1. EMANTZIPATUTAKO GAZTERIA

BHGk gazteen bizimodu independentea errazteko duen helburuarekin lotutako adierazleak.

- Gazteek bilakaera positiboa izan dute hezkuntzaren arloan, eta EBren antzeko adierazleak lortu dira.
- Gazteek lan-testuinguru konplexu bati egin behar diote aurre, langabeziari, behin-behinekotasunari, partzialtasunari eta batez besteko soldadari buruzko datu kaxkarrekin, ez baitira hobetu azken bosturtekoan. Hala ere, aurreikuspenak nahiko baikorrak dira.
- Laneko zailtasunak emantzipazioaren esparrura eramaten dira. 30 urte bete ondoren hasten dira modu independentean bizitzen, eta soldataren erdia baino gehiago etxebizitza ordaintzeko erabili behar dute.
- Pobrezia gazteak etengabe eragiten dituen arazoa da, eta datuak ez dira hobetu 2008-2020 aldian.



1.1 FORMAZIOA


1. Eskola-uzte goiztiarraren tasa

Definizioa: gehienez derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen etapa amaitu eta inolako ikasketa edo prestakuntzarik jarraitu ez duten biztanleen ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia. Sexuari buruzko datuak EAEkoak eta 2019koak dira.




% 10,3

Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE	UE28
% 10,3	% 8,8	% 10,3

Gazteen % 10,3k gehienez ere derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen etapa amaitu du, eta ez du inolako ikasketa edo prestakuntzarik jarraitu.

Azken urteotan % 10 inguruan mantendu da.


2. Bigarren mailako ikasketak dituzten gazteen tasa

Definizioa: gutxienez bigarren mailako ikasketak gainditu dituzten 20-24 urteko pertsonen ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia.



% 93,4

Bilakaera



Gazteen % 93,4k bigarren mailako ikasketak gainditu ditu gutxienez, baina beharrezko joera nabari da.



Oinarri hartuta bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria-tasaren aldea Bilbo (% 53,6) eta Bizkaia (% 48,8) artean, hiriburuko gazteen artean ere handiagoa izan daitekeela uste da.


Iturria: Eustat (Biztanleria Jardueraren Arabera Saikatzeko Inkesta eta Hezkuntzako Udal Estatistika).

3. gehiagoko mailako ikasketak dituzten gazteen tasa


Definizioa: hirugarren mailako ikasketak dituzten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoa (graduiko unibertsitate-ikasketak, masterrak, doktoregoa, goi-mailako lan-hezkuntza). 2020. urtea, Bizkaia. Sexuaren arabera datuak EAEkoak eta 2019koak dira.



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE	UE28
% 53,1	% 48	% 41,6

Gazteen % 53,1ek hirugarren mailako ikasketak ditu. Nabarmentzekoa da emakumeen (% 53) eta gizonen (% 42,9) arteko aldea. Azken urteotan joera goranzkoa izan da.

Iturria: GEB eta Eustat (Biztanleria jardueraren arabera saikatzeko inkesta)


4. Zientzia eta teknologiako batxilergoko ikasleen tasa

Definizioa: Euskal Herriko Unibertsitatean sartzeko probetara zientzien eta teknologiaren bidetik aurkeztutako ikasleen ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia.




% 56,7

Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 56,7	% 57,4

Batxilergoko bidea

	Bizkaia	EAE
Zientzia eta teknologia	% 56,7	% 57,4
Geta gizarte-zientziak	% 40,4	% 39,7
Arteak	% 2,9	% 2,9

Ikasle gehienak zientzia eta teknologiako batxilergokoak dira, giza-zientzien gainetik. Aukera ohikoagoa da gizonen artean emakumeen artean baino (10 puntuko aldea), emakumeek gehiagotan hautatzen baitute giza eta gizarte-zientzietako bidea.


5. Zientzia, matematika eta teknologiko tituludun gazteen tasa

Definizioa: zientzia, matematikan eta teknologian hirugarren mailako titulazioa (gradua eta mastera) duten gazteen tasa, 20-29 urteko 1000 gazteko. 2018/19. urtea, Bizkaia.




21,3

Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
21,3	18,7

1000 gaztetik 21ek hirugarren mailako titulazioa dute zientzian, matematikan eta teknologian. Emakumeen kasuan tasa 14,7ra jaitsi da eta gizonen kasuan 27,8ra igo da.

Azken hamarkadan ez dago aldaketa nabarmenik.


6. Ikasle bekadunen tasa

Definizioa: EAEn unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasle bekadunak, irakaskuntza-mailaren arabera. 2019/20. urtea, EAE.



% 32

Ikasketa-maila



EAEn unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako gazteen % 32k bekak jasotzen ditu. Nabarmentzekoa da ikasle bekadunen ehuneko handiena duen ikasketa-maila oinarritzko lanbide-heziketakoa (LHII) dela.


7. Gazte hirueledunen tasa

Definizioa: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ondo hitz egiten duten 15-29 urteko biztanleen ehunekoa. 2019. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 42,1


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 42,1	% 49,3

Gazteen % 42,1ek ondo hitz egiten du euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Segmentu gazteenak (15-19 urte) eta emakumeek batez bestekoak baino hobeto menderatzen dituzte hiru hizkuntzak.

Azken urteotan etengabe hazi da hirueletasun-tasa.


8. Euskal hezkuntza-sistemaren balorazioa

Definizioa: euskal hezkuntza-sistemaren balorazio positiboa egiten duten 15-29 urteko pertsonen ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 47,7

Bizi-zikloa



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 47,7	% 52,7

Euskal hezkuntza-sistemaren balorazio positiboa egin du gazteen % 47,7k. Balorazioa positiboagoa da adin-tarte helduenetan.

Pandemiarekin batera, balorazioak nabarmen egin du behera.



1.2 ENPLEGUA ETA EKINTZAIETZA


1. Jarduera-tasa

Definizioa: lan egiten duten edo lan egiteko prest dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa (beraz, lana bilatzen ari diren landun eta langabeak biltzen ditu), adin-talde bereko pertsona guztiekiko. 2020. urtea, Bilbo. Sexuaren arabera azalduko diren EAEkoak dira.




% 45,2

Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bilbo	Bizkaia	EAE
% 45,2	% 46,8	% 47,8

Gazteen % 45,2k lan egiten du edo lanerako prest dago.

la ez dago alderik emakumeen eta gizonen artean; eta 2016. urteaz geroztik 10 puntuko jaitsiera nabarmena gertatu da.


2. Okupazio-tasa

Definizioa: Enplegua duten 16-29 urteko pertsonen ehunekoa, adin-talde bereko pertsona guztietik. 2020. urtea, Bilbo. Sexuaren araberaiko analisiak EAEkoak dira.




% 33,7

Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bilbo	Bizkaia	EAE
% 33,7	% 35,9	% 37,3

Gazteen % 33,7k enplegua du, eta datu hori Bizkaiaren eta EAEn zertxobait azpitik dago.

Alde txiki bat dago emakumeen eta gizonen artean; eta 2016. urteaz geroztik, jaitsiera nabarmena gertatu da.


3. Langabezia-tasa




Definizioa: 16 eta 29 urte dituzten pertsona aktibo guztietatik, langabezian dauden pertsonen ehunekoa. Langabezian dauden pertsonak dira lanik ez dutenak, baina lanerako prest daudenak eta aktiboki lan bila ari direnak; hau da, ez ditu barnean hartzen lana bilatzen ari ez diren ikasleak, ez eta lanik egin ezin duten pertsona ezinduek ere. 2020. urtea, Bilbo. Bilboko datuan laginketa-akats oso handia dago, eta, beraz, arretaz aztertu behar da. Sexuaren arabera datuak EAEkoak dira.

% 25,4

Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bilbo	Bizkaia	EAE
% 25,4	% 23,3	% 22,2

Gazteen % 25,4 langabezian dago, Bizkaiaren eta EAEren gainetik. Emakumeen kasuan, tasa gizonena baino pixka bat txikiagoa da. Bilakaera positiboa izan da 2015 eta 2018 artean (10 puntuko murrizketa), baina azken 3 urteetan gora egin du gazteen langabeziak.



Garrantzitsua da azpimarratzea 2020an 6.555 pertsona langabe erregistratu zirela Bilbon, hots, 2019an baino 1.192 gehiago.

4. Behin-behinekotasun tasa

Definizioa: aldi baterako kontratua duten pertsonen ehunekoa, adin-talde bereko soldatapeko pertsona guztiekiko (16-29 urte). 2020. urtea, Bilbo. Bilboko datuan laginketa-akats oso handia dago, eta, beraz, arretaz aztertu behar da. Sexuaren araberako segmentazioa EAEkoa da.



% 61,3



Lurralde-eremua

Bilbo	Bizkaia	EAE
% 61,3	% 67,1	% 62,6

Gazteen % 61,3k aldi baterako kontratua du, eta datuak Bizkaikoa eta EAEkoa baino zertxobait txikiagoa da. Emakumeek gizonen baino gehiago pairatzen dute behin-behinekotasun hori.

Bilakaerak ez du ahalbidetzen 2015-2020 aldian joera argi bat identifikatzea, nahiz eta azken urteetan apur bat behera egin duen.


5. Partzialtasun-tasa

Definizioa: astean 30 ordu baino gutxiagoko kontratua duten 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, adin-talde horretako pertsona okupatu guztiekiko. 2020. urtea, Bilbo. Bilboko datuan laginketa-akats oso handia dago, eta, beraz, arretaz aztertu behar da. Sexuen arabera segmentazioa EAEkoa da.




% 31,9

Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bilbo	Bizkaia	EAE	UE28
% 31,9	% 31,3	% 32,5	% 23,1

Gazteen % 31,9k astean 30 ordu baino gutxiagoko kontratua du; EBrekin alderatuta, ehuneko handia da. Behin-behinekotasunarekin gertatzen den bezala, partzialtasunak gehiago eragiten die emakumeei gizonei baino.

Bilakaerari dagokionez, datua % 30 ingurukoa da.


6. Norberaren konturako enplegua

Definizioa: norberaren kontura lan egiten duten 20-29 urteko gazteen ehunekoa (enpresaburuak eta autonomoak), adin bereko pertsona landun guztiekiko. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloaren eta sexuaren arabera datuak EAEkoak dira.




% 4,8

Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE	EB 28 (2019)
% 4,8	% 4,1	% 6,4

Gazteen % 4,8 norberaren kontura ari da lanean, eta datu hori handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino. Datua EAEkoa baino pixka bat handiagoa da, baina Europako batez bestekoaren azpitik dago.

2011-2020 aldiko bilakaerak ez du aldaketa nabarmenik erakusten, abiapuntuko eta helmugako datuak ia berdinak baitira.


7. Hileko batez besteko soldata garbia

Definizioa: 18-34 urteko soldatapeko gazteen hileko batez besteko soldata garbia (aparteko ordainsari hainbanatuekin). 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloaren eta sexuaren arabera datuak EAEkoak dira.




1.305


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
1.305	1.297

Hileko batez besteko soldata garbia 1.305 €-koa da. Segmentu gazteenaren eta helduenaren arteko aldea % 22koa da, eta, sexuaren arabera, % 16 handiagoa gizonen kasuan.

Gazteen batez besteko soldatak behera egin du 2013-2020 aldian.


8. Enplegu egokitua

Definizioa: beren prestakuntzarekin oso edo nahiko lotuta dagoen lanpostuan lan egiten duten Bizkaiko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 75,2


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 75,2	% 67,8

Gazteen % 75,2k beren prestakuntzarekin oso edo nahiko lotuta dagoen lanpostu batean lan egiten dute, eta EAEko datua gainditzen du (7 puntu batez beste).



2015etik ehunekoak nabarmen egin du gora, eta 2020an orain arte izandako daturik altuena lortu du.

9. Laneratzea LHko ikasketen ondoren

Definizioa: erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako tituludunen artean lanean ari diren pertsonen ehunekoa, ikasketak amaitu eta 12 hilabetera. 2020. urtea, EAE.



% 78,5



Gazteen % 78,5 lanean ari da LHko ikasketak amaitu eta 12 hilabetera. 2020an izan zen lehen beherakada, hainbat urtez jarraian gora egin ondoren.



Iturria: GEB— Estatistikak eta Lanbide.

10. Laneratzea unibertsitateko ikasketen ondoren

Definizioa: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatean eta Mondragon Unibertsitatean ikasketak amaitu eta 3 urtera enplegu bat duten pertsonen ehunekoa, graduatutako pertsona guztiekiko. 2020. urtea, EAE.



% 87



Gazteen % 87k enplegua du unibertsitateko ikasketak amaitu eta hiru urtera. Laneratzea etengabe ari da hobetzen 2012tik.


11. Lana aurkitzeko itxaropena

Definizioa: Urtebeteko epean lana aurkitzeko itxaropena duten gazte langabeen ehunekoa (15-29 urte). 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloaren eta sexuaren arabera segmentazioa EAEkoa da.




% 58


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 58	% 64

Gazte langabeen % 58k urtebete baino gutxiagoan lana aurkitzeko itxaropena du. Gizonek emakumeek baino itxaropen handiagoa dute, baita gazteen artean ere.

Bilakaerari esker, gazte langabeen jarrera gero eta baikorragoa da, nahiz eta pandemiak inertzia positiboa geldiarazi duen.


1.2. Enplegu egokituaren itxaropena

Definizioa: ikasketak amaitzean prestakuntzaren araberako lana aurkitzeko itxaropena duten ikasleen ehunekoa (15-29 urte). 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloaren eta sexuaren araberako segmentazioa EAEkoa da.




% 74


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 74	% 76

Gazteen % 74k ikasketekin lotutako lana aurkitzeko itxaropena du. Gizonek emakumeek baino itxaropen handiagoa dute, eta adin nagusiagoa dutenak batez bestekoa baino baikorragoak dira.

2013-2020 aldiko bilakaerak erakusten du gazteen itxaropenek gora egin dutela, ikasketekin bat datorren lana aurkitzen dutelako.


13. Enplegua galtzeko arriskua

Definizioa: urtebeteko epean lana galtzea oso edo nahiko litekeena dela uste duten 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloaren eta sexuaren arabera EAEkoa da.




% 33


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 33	% 34

Lanean ari diren gazteen % 33k uste du oso edo nahiko litekeena dela urtebeteko epean lana galtzea.

Kolektibo gazteena (20-24 urte) da arrisku handiena hautematen duena. Emakumeen (% 35) eta gizonen (% 32) artean ere badira aldeak, arinagoak badira ere.



1.3 ETXEBIZITZA


1. Gazteen emantzipazio-tasa

Definizioa: emantzipatuta bizi diren 18-34 urteko biztanleen ehunekoa, adin bereko pertsona guztietatik. Emantzipatutako pertsonatzat hartzen da jatorrizko etxetik kanpo bizi dena, BAIn 'erreferentziatzko pertsona', 'ezkontidea' edo 'ahaidetasunik gabeko pertsona' gisa agertzen direnak oinarritzat hartuta. 2020. urtea, Bizkaia. Sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 32,9


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 32,9	% 35,1

Gazteen % 32,9 emantzipatuta bizi da. Emakumeen eta gizonen arteko aldea esanguratsua da.

Emantzipazio-tasa 7 puntu jaitsi da 2008-2020 aldian.



Hirian 15 mila pertsona baino gehiago* bizi dira soilik gazteak bizi diren etxeetan (34 urte edo gutxiagokoak) Bilboko Udaleko Etxebizitza Arloaren arabera.


2. Gazteen batez besteko emantzipazio-adina

Definizioa: jatorrizko familiarekin bizitzeari uzteko batez besteko adina.
2019. urtea, Bizkaia. Sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




30

Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE	Egoer a	UE28
30	30,2	29,5	25,9



Jatorrizko familiarekin bizitzeari uzteko batez besteko adina 30 urtekoa da.
Ez dago aldaketa nabarmenik 2006 eta 2019 artean.

3. Emantzipatzeko benetako adinaren eta adin idealaren arteko aldea

Definizioa: 18 eta 34 urte bitarteko gazteen iritziz, emantzipatzeko benetako adinaren eta adin idealaren arteko aldea (adin erreal - adin ideala). 2020. urtea, Bizkaia. Sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.



5,3



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
5,3	5,7

Emantzipatzeko benetako adinaren eta idealaren arteko aldea 5,3 urtekoa da. Zehazki, 25 urterekin emantzipatu nahiko lukete gazteek, baina 30 urterekin emantzipatzen dira.


4. Etxebizitza librea jabetzan eskuratzeko kostua

Definizioa: 18 eta 34 urte bitarteko Bizkaiko soldatapeko gazte batek merkatu libreko baldintzetan erosketak ordaintzeko erabili behar duen hileko soldata garbiaren batez besteko ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia.




% 55,4


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 55,4	% 58,7

18 eta 34 urte bitarteko gazte batek bere hileko soldata garbiaren % 55,4 erabili behar du merkatu libreko baldintzetan egindako erosketak ordaintzeko. Egoera zailena dutenak 18 eta 24 urte bitarteko gazteak (soldataren % 77,3) eta emakumeak (% 59,5) dira.


5. Etxebizitza librea alokatzeko kostua

Definizioa: 18 eta 34 urte bitarteko Bizkaiko soldatapeko gazte batek merkatu libreko baldintzetan alokatzeko erabili behar duen hileko soldata garbiaren batez besteko ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia.




% 53,7


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 53,7	% 54,7

18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazte batek bere hileko soldata garbiaren % 53,7 erabili behar du alokairua ordaintzeko merkatu libreko baldintzetan. Kolektibo gazteenak (18-24 urte) eta emakumeak dira soldataren ehuneko handiena alokairura bideratu behar dutenak.

Alokairua etengabe garestitzen ari da 2016 eta 2020 artean.



Alokairuko etxebizitza bat eskuratzek batez besteko soldatapeko gazte baten % 54 hartzen duela eta hura erosteak soldataren % 55 hartzen duela kontuan hartuta, ondoriozta daiteke Bizkaian ez litzatekeela betetzen ari gomendatutako zorpetze-muga (% 30).

Gainera, kontuan izan behar da erabilitako etxebizitzaren eta alokairuaren prezioak nabarmen altuagoak direla Bilbon Bizkaiko gainerako lurraldeetan baino (+% 39 eta +% 6, hurrenez hurren*), eta batez besteko errenta pertsonala, berriz, % 4** handiagoa dela soilik. Horregatik, gomendatutako zorpetze-muga gehiago gainditu daiteke.

*Iturria: 2021eko Bilboko Urtekari Sozioekonomikoa eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila - Higitzearen eskaintzari buruzko inkesta. (2020ko datuak)

** Iturria: Eustat – Errenta Pertsonala eta Familiarraren Estatistika (2019)

6. Etxebizitza babestu batean bizi diren gazteak

Definizioa: etxebizitza babestu batean (erosita edo alokatuta) bizi diren 18-34 urteko gazte emantzipatuen ehunekoa. 2019. urtea, Bizkaia.



% 10,7

Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 10,7	% 13,6

Bizkaian emantzipatutako hamar gaztetik bat etxebizitza babestu batean bizi da (EAE baino zertxobait gutxiago).


7. Etxebizitzaren garestitasuna emantzipatzeko zailtasuntzat hartzea

Definizioa: emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa, emantzipatzeko zailtasuntzat etxebizitza garestia dela ikusten dutenena. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari (2017) eta sexuari (2020) buruzko datuak EAEkoak dira.




% 88


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 88	% 83,8

Emantzipatu ez diren gazteen % 88k emantzipatzeko zailtasuntzat jotzen du etxebizitza garestia izatea, eta are gehiago adin handieneko segmentuak (25-34 urte). Nabarmentzekoa da emakumeen (% 87,8) eta gizonen (% 80) arteko aldea.


8. Emantzipazioa zapuzteko itxaropena gazteen artean

Definizioa: urtebeteko epean emantzipazio-proiektuak ezingo dituztela gauzatu uste duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa, jatorrizko etxetik irten ezin dutelako edo nahi gabe etxera itzuli behar dutelako. 2020. urtea, Bizkaia, Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 43


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 43	% 41

Gazteen % 43k uste du urtebeteko epean ezin izango dituela emantzipazio-proiektuak gauzatu. 20-24 urteko pertsonak dira emantzipazio-proiektuei buruzko ikuspegi ezkorrena dutenak.

Testuinguruak zailtasunak izan arren, gazteek gero eta konfiantza handiagoa dute emantzipazio-proiektuak garatu ahal izateko.



1.4 BALIABIDEAK ETA GIZARTERATZEA


1. Benetako pobrezia-tasa

Definizioa: benetako pobrezia-egoeran dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa (gabezia-egoeren ondoriozko oinarritzko premiak ez asetzeko arriskua) adin horretako gazte guztiekiko. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 6,3


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 6,3	% 6

Gazteen % 6,3 benetako pobrezia-egoeran bizi da. Egoera horrek eragin handiagoa du adin-tarte gazteenean (16-19 urte) eta emakumeetan. 2008-2020 aldian ez da ikusten pobrezia-aren beherakada esanguratsurik.



Baliteke Bilboko gazteen pobrezia-tasa Bizkaikoa baino pixka bat handiagoa izatea; izan ere, 3 puntuko aldea dago adin guztietarako (7,0 Bizkaia / 10,1 Bilbo).


2. Benetako pobrezia-tasa gazteak buru dituzten etxeetan




Definizioa: benetako pobrezia-egoeran dagoen 35 urtetik beherako pertsona bat buru duten etxeetan bizi den biztanleriaren ehunekoa. PGDI metodologiaren arabera, benetako pobrezia da pobrezia-egoeraren dimentsio batean edo bestean (mantentzea edo metatzea) agertzen diren oinarritzko premiak behar bezala ez estaltzeko arrisku-egoerak biztanleriaren eguneroko bizitzan behar bezala konpentsatuta ez egotea, pobrezia-egoeraren bizipenetik at dagoen gutxieneko ongizate-maila lortzeko. Adierazlea erakitzean, mantentze- eta metatze-adierazleen posizioaz gain, lotutako beste prekarietate-elementu batzuk ere hartzen dira kontuan. Adierazgarriena da gabezia-egoerak agertu direla azken urtean. 2020. urtea, Bizkaia. Sexuaren araberrako datuak EAEkoak dira.

% 16,2

Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 16,2	% 15,3

Gazte bat buru duten etxeen % 16 benetako pobrezia-egoeran daude.


3. DSBE jasotzen duten gazteak

Definizioa: DSBE jasotzen duten 20-34 urteko gazteen ehunekoa. 2021. urtea, Bilbo. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira, eta bilakaerari buruzkoak Bizkaikoak (2020. urtea, 18-34 urte).




% 3,8


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Biztanleriaren % 3,8k jasotzen du DSBEa. DSBE jasotzeko tasak gora egiten du adinarekin, eta handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino.

2013-2020 aldiko bilakaerak erakusten du gazteek gero eta gutxiago jasotzen dutela laguntza hori.




4. Lanik egiten ez duten eta ikasten ari ez diren gazteria ez aktiboa

Definizioa: ikasten, lan egiten eta lana bilatzen ari ez diren Euskadiko 15-24 urteko gazteen ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia.



% 8,6

Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE	UE27
% 8,6	% 8,3	% 11,1

Bizkaiko gazteen % 8,6k ez du ikasten, ez lan egiten eta ez da lanik bilatzen ari. Bizkaia EBko batez bestekoaren azpitik dago (% 11,1), baina EAEkoa baino pixka bat gorago.

Ikasten edo lanik egiten ari ez diren gazteen ehunekoa ez da asko aldatu 2017 eta 2020 artean.




2. GAZTERIA AKTIBOA



Gazteen garapen osoa bultzatzeko BHGren helburuarekin lotutako adierazleak.

- **Gazteak osasun onarekin hautematen dira**, eta arrisku-arazo eta -ohitura nagusiek gutxiengoari bakarrik eragiten diote. Jarduera fisikoa ohitura orokorra da.
- **Gazteen aisialdi-ohiturei dagokienez**, gutxiago erabiltzen dira lonjak elkargune gisa, eta aisialdi digitala, berriz, nabarmen hazten ari da.
- **Praktika artistikoa eta kontsumo kulturala gero eta handiagoak dira**, aisialdiko irakurketa izan ezik.





2.1 OSASUNA


1. Osasun txarraren prebalentzia

Definizioa: 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean osasuna hala-moduzkoa, txarra edo oso txarra dela uste dutenen ehunekoa. 2018. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 2,9


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 2,9	% 2,4

Gazteen % 2,9k soilik uste du bere osasuna erdipurdikoa, txarra edo oso txarra dela. Bizi-zikloaren arabera aldea daude: osasun txarraren pertzepzioa handitu egiten da adinak aurrera egin ahala. Batez beste, emakumeek gizonek baino osasun txarragoarekin lotzen dute beren burua.

Aztertutako azken bosturtekoan, gazteek beren osasunari buruz duten pertzepzioak hobera egin duela ikusi da.


2. Gazteen obesitate-tasa

Definizioa: GMI (gorputz-masaren indizea) 30 urtetik gorakoa duten 15-29 urteko pertsonen ehunekoa. 2018. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 4,5


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 4,5	% 4,2

Gazteen % 4,5ek 30 urtetik gorako GMI (gorputz-masaren indizea) du. Nabarmenezkoa da emakumeen kasuan ehunekoa % 3,8ra jaisten dela eta gizonen kasuan % 5,1era igotzen dela. Bestalde, obesitatea ugariagoa da 25-29 urteko biztanleen artean, eta eragin eskasa du 15-19 urtekoen artean.

Joera ez da positiboa, aztertutako azken hamarkadan puntu 1 igo baita.


3. Osasun-arazo kronikoen prebalentzia

Definizioa: osasun-arazo kronikoak, etengabeak edo iraupen luzekoak dituzten edo maiz errepikatzen diren 15-29 urteko pertsonen ehunekoa. 2018. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 21


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 21	% 18,3

Gazteen % 21ek osasun-arazo kronikoak, etengabeak edo iraupen luzekoak dituzte, edo sarri samar errepikatzen direnak.

Emakumeek, batez beste, gaixotasun kroniko gehiago dituztela baieztatzen dute, baita 25 eta 29 urte bitartekoek ere.


4. Depresio- eta antsietate-arazo prebalentzia-tasa

Definizioa: aurreko hilean depresio- edo antsietate-arazoak izan dituztela adierazi duten gazteen ehunekoa. 2018. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 9,9


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 9,9	% 8,3

Hamar gaztetik batek antsietate- edo depresio-arazoak ditu. Azpimarratzekoa da ehunekoak eragin handiagoa duela adin handieneko taldean (25-29 urte) eta emakumeetan (% 11,4), gizonak baino sei puntu gorago baitaude (% 5,1).

Baliteke pandemiaren testuinguruak datu esanguratsuak ematea datozen urteetan.


5. Ohiko erretzaile gazteak

Definizioa: inkesta egiten den unean ohiko erretzailetzat jotzen diren 15-24 urteko pertsonak. 2018. urtea, Bizkaia.



% 15,4

Sexuak



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 15,4	% 12,3

Gazteen % 15,4k ohiko erretzailetzat jotzen du bere burua. Alde nabarmena dago emakumeen eta gizonen artean, gizonak 8 puntu gehiago baitituzte.

Iturria: EAEOL, Osasun Saila, 2018.


6. Gutxienez hilean behin alkohol-kontsumo intentsiboa egiten duten gazteak

Definizioa: hilean behin edo gehiagotan alkohol-kontsumo intentsiboa egiten duten 15-24 urteko pertsonen ehunekoa. 2018. urtea, Bizkaia.



% 7,3

Sexuak



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 7,3	% 8,2

Gazteen % 7,3k alkohol-kontsumo intentsiboa egiten du hilean behin gutxienez. Gizonen kasuan % 13k egiten dute, eta 10 puntu gorago daude emakumeen aldean.



Iturria: EAEOL, Osasun Saila, 2018.

7. Cannabisaren kontsumoa

Definizioa: cannabis egunero edo ia egunero kontsumitzen duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2017. urtea, EAE.



% 4,2



Gazteen % 4,2k egunero edo ia egunero kontsumitzen du cannabis. Emakumeen kasuan ehunekoa oso txikia da, % 1 baino ez.

Cannabisaren kontsumoaren joera beheranzkoa da aztertutako hamarkadan.



2.2 KIROLA


1. Jarduera fisikoaren tasa

Definizioa: azken zazpi egunetan jarduera fisiko osasungarria (ertaina edo handia) egin duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa, adin bereko pertsona guztiekiko. 2018. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 90,8


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 90,8	% 86,3

Gazteen % 90,8k astero egiten du jarduera fisikoa, eta datuak goranzko joera du. Nabarmentzekoa da emakumeen datua txikiagoa dela (% 85,3) gizonena baino (% 87,3). Bestalde, ehunekorik handiena 25-29 urtekoen artean dago.


2. Kirol-federazio eta -elkarteetan izena emanda dauden pertsonak

Definizioa: kirol-elkarteren bateko kide diren 15 eta 30 urte bitarteko gazteen ehunekoa. 2016. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 24


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 24	% 24

Gazteen % 24 kirol-elkarteren bateko kide da. Nabarmentzekoa da 9 puntuko aldea dagoela emakumeen eta gizonen artean.

Bestalde, ehunekorik handiena 15-19 urtekoen artean dago.



2.3 AISIA


1. Lonja duten gazteak

Definizioa: aisialdiko jardueretarako lonja duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2021. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 6


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 6	% 5,7

Gazteen % 6k aisialdiko jardueretarako lonja bat du. Nabarmenezkoa da emakumeen (% 4,3) eta gizonen (% 7,2) arteko aldea. Bestalde, ehunekorik handiena 20-24 urtekoen artean dago.

2016-2020 urteen artean atzerakada nabarmena ikus daiteke, ziurrenik pandemiaren ondorioz.


2. Aisialdi digitalaren tasa

Definizioa: aisialdi digitaleko jarduerak egunero egiten dituzten 15-29 urteko gazteen ehunekoa (kontsolekin edo telefono mugikorrarekin jolastea, sare sozialak erabiltzea, blogetan idaztea, etab.). 2018. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 65


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 65	% 62,2

Gazteen % 65ek aisialdi digitaleko jarduerak egiten ditu egunero, hala nola bideojokoetan aritzea, sare sozialak erabiltzea... Praktika ohikoagoa da gizonen artean emakumeen artean baino, eta gazteenen artean (15-29) helduenen artean baino (25-29).

Aisia digitalaren joera goranzkoa da, argi eta garbi.



2.4 KULTURA


1. Kontzertuetara joatea

Definizioa: azken hiru hilabeteetan kontzerturen batera joan diren 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2018. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 61


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 61	% 63

Gazteen % 61 kontzerturen batera joan da azken hiru hilabeteetan. Nabarmentzekoa da emakumeen kasuan ehunekoa % 59ra jaisten dela eta gizonen kasuan % 66ra igozten dela.

Datuak altuagoak dira 15-19 urte tartean.


2. Zinemara joatea

Definizioa: azken hiru hilabeteetan zinemaren batera joan diren 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2018. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 64


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 64	% 63

Gazteen % 64 zinemaren batera joan da azken hiru hilabeteetan. Ehunekorik handiena 20-24 urtekoen artean dago.

Joeraren bilakaera laua izan da azken urteetan.


3. Antzerkira joatea

Definizioa: azken hiru hilabeteetan antzokiren batera joan diren 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2018. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 25


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 25	% 21

Gazteen laurdenak aldizka joaten dira antzokira. Ehunekorik handiena 15-19 urtekoen artean dago, eta 2018an igoera handi bat gertatu zen 2016aren aldean.


4. Museora joatea

Definizioa: azken hiru hilabeteetan museoren batera joan diren 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2018. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 24


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 24	% 24

Gazteen % 24 museoren batera joan da azken hiru hilabeteetan. Ehunekorik handiena 25-29 urtekoen artean dago, eta azken urteetan joera % 20 inguruan mantendu da.


5. Aisialdian irakurtzeko ohitura

Definizioa: azken hilabeteen aisialdian libururen bat irakurri duten 15-29 urteko pertsonen ehunekoa. 2021. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 48,6


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 48,6	% 48,8

Gazteen % 48,6k aisialdian irakurtzeko ohitura du. Adin-tarterik helduenak (25-29 urte) eta emakumeek irakurtzeko ohitura handiagoa dute batezbestekoak bain.


6. Aisialdian euskaraz irakurtzeko ohitura

Definizioa: azken 3 hilabeteetan aisialdian euskaraz irakurri duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2021. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 30,5


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 30,5	% 32,8

Gazteen % 30,5ek euskaraz irakurri du aisialdian azken hiru hilabeteetan. Euskarazko irakurketa hedatuagoa dago adin-tarte gazteenaren (15-19 urte) eta emakumeen artean.

Ohitura horrek beheranzko joera izan du 2008-2021 aldian.


7. Kultur elkarteetan aktiboki parte hartzea

Definizioa: kultura-elkarteetan aktiboki parte hartzen duten 15-24 urteko biztanleen ehunekoa. 2019. urtea, EAE.



% 14

Bizi-zikloa



Gazteen % 14 elkarte kultural edo artistiko bateko kide da. Adin-tarte helduenaren artean (25-34 urte) parte-hartze handiagoa dago.


8. Jarduera artistikoak egitea

Definizioa: azken urtean jarduera artistikoak egin dituzten 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2021. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 76,3


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua


Bizkaia	EAE
% 76,3	% 76,8

Gazteen % 76,3k arte-jarduerak egin ditu azken urtean. Nabarmentzekoa da emakumeen kasuan ehunekoa % 79,1era igotzen dela eta gizonen kasuan % 74,5era jaisten dela. Ehunekorik handiena 15-19 urtekoen artean dago, eta 2021ean igoera handi bat gertatu zen 2018aren aldean.

3. KONPROMETITUTAKO GAZTERIA

Gazteen konpromiso soziala eta zibikoa sustatzeko BHGren helburuarekin lotutako adierazleak.

- **Gazteak feministatzat jotzen badira ere, oraindik ere arrakala handiak ikusten dira lanean eta etxean.** Genero-indarkeriari buruzko adierazleek ere ez dute erakusten egoerak hobera egin duenik.
- **Euskararen ezagutza gero eta handiagoa da gazteen artean, baina erabilera ez da aldatu.**
- **Gazteen jarrera gero eta jasangarriagoa da** bai kontsumoan bai mugikortasunean, eta bizikleta gero eta gehiago erabiltzen dela nabarmentzen da.
- **Lau gaztetik bat intolerantea da desberdintasun ideologiko edo kulturekiko, eta hamarretik batek uste du Euskadin atzeritar gehiegi daudela.**
- **Gazteek modu aktiboan parte hartzen dute ingurunean, elkarten eta boluntarioen bitartez.** Gainera, gero eta interes handiagoa dute gai publikoekiko eta politikarekiko, eta konfiantza handiagoa tokiko erakundeekiko.





3.1 BERDINTASUNA ETA SEXU-ANIZTASUNA


1. Gazteria feminista

Definizioa: oso edo nahiko feministatzat jotzen diren 15-29 urteko pertsonen ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak eta 2020. urtekoak dira.




% 82,2

Bizi-zikloa



Sexuak



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 82,2	% 83,4

5 gaztetik 4k oso edo nahiko feministatzat dute beren burua. Emakumeen eta gizonen arteko aldea handia da, 14 puntukoa, eta adinaren arabera, berriz, ez dago alde esanguratsurik, 15-19 urteko adin-tartean izan ezik, non datua gazteena baino pixka bat txikiagoa den.


2. Genero-diskriminazioaren pertzepzioa lanerako sarbidean

Definizioa: 15 eta 29 urte bitarteko emakume gazteen artean, prestakuntza eta esperientzia bera izanik, mutil batek lanpostu bat lortzeko neska batek baino aukera gehiago dituela uste dutenen ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari, sexuari eta bilakaerari buruzko datuak EAEkoak eta 2020. urtekoak dira.




% 23


Bilakaera-zikloa



Sexuak



Bilakaera (emakumeak)



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 23	% 23

Emakume gazteen % 34k uste du diskriminatu egiten zaiela lana bilatzean; iritzi bera dute soilik gizonen % 7k. Bilakaerak erakusten du emakumeen diskriminazioaren pertzepzioak gora egin duela.


Iturria: GEB – "Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa 2020" txostena.

3. Genero-aldea etxeko lanetan

Definizioa: 16 eta 30 urte bitarteko emakumeek eta gizonek etxeko lanetan egunean ematen duten batez besteko denboraren aldea. 2018. urtea, Bizkaia.



30 min



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
30 min	18 min

Etxeko lanetan dagoen genero-arrakalak alde handia erakusten du emakumeen eta gizonen artean, 81 eta 51 minutu ematen baitituzte, hurrenez hurren. Bizkaia EAEko batez bestekoaren gainetik dagoela ere esan daiteke.

Iturria: Eustat – “Partaide eta eguneko batez besteko denbora talde handietan, jardueraren eta sexuaren arabera 2018”.


4. Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa

Definizioa: emakumeen aurkako indarkeriagatiko salaketa jarri duten 15-29 urteko tasa, mila emakumeko. 2020. urtea, Bizkaia.




**7,9 mila
emakumeko**

Bizi-zikloa



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
7,9	7,6

Emakume gazteen aurkako indarkeriaren tasak ez du aldaketa nabarmenik izan azken hamarkadan. Kezkaragarria da gazteen datua 30 urtetik gorakoena baino nabarmen handiagoa izatea.

Bizkaiko datua EAEkoa baino pixka bat altuagoa da.


5. Gauzez bakarrik ibiltzeko beldurra

Definizioa: herrian gauzez bakarrik ibiltzean beldur direla dioten 15-29 urteko pertsonen ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 38,5


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera (emakumeak)



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 38,5	% 42,2

Gazteen % 38,5ek beldurra dio kalean gauzez bakarrik ibiltzeari. Emakumeen kasuan, ehunekoa % 74,1era igotzen da, eta gizonena % 11,9an dago.

Segurtasunik ezaren sentsazioa nabariagoa da gazteenen artean

ilakaerari esker, azken urteetan emakumeen segurtasunik ezak nabarmen egin du gora.


6. Sexu bereko pertsonen ezkontzarako laguntza

Definizioa: ezkontza babesten duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa sexu bereko pertsonen artean. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 97,8


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 97,8	% 97,7

Sexu bereko ezkontzaren aldeko jarrerak gora egin du, aho batez onartu arte. Zentzu horretan, adin-tarte gazteenek eta emakumeek babesten dituzte gehien elkartze horiek


7. Sexu-aldaketaren legea babestea

Definizioa: legezko sexu-aldaketaren alde dauden 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 96,7


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 96,7	% 96,6

Sexu-aldaketaren legearen aldeko ikuspuntua orokorra da, eta goranzko joera etengabea izan da 2008 eta 2020 artean.

Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzari buruzko aurreko adierazlean ikus daitekeen bezala, adin-tarte gazteenak eta emakumeak zertxobait sentsibilizatuago daude aniztasunarekiko.



3.2 BILBO EUSKALDUNA


1. Euskararen ezagutza gazteen artean

Definizioa: euskaraz oso edo nahiko ondo egiten duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2019. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 74,6


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 74,6	% 78,5

Bizkaiko gazteen % 74,6k oso edo nahiko ondo hitz egiten du euskaraz; datu hori EAEkoa baino 4 puntu beherago dago. Adin-tarteen arabera, ezagutza orokorra da bi adin-tarte gazteenetan, baina ez hainbeste 25-29 urtekoan.

Emakumeen kasuan, ehunekoa 11 puntu handiagoa da gizonena baino. Euskararen ezagutza etengabe hazten ari da 2009tik.


2. D ereduko ikasleen tasa batxilergoan

Definizioa: egoitza Bilbon duten ikastetxeetan D ereduan matrikulatutako batxilergoko ikasleen ehunekoa.




% 47,6

Sexuak (batxilergoa)



Bilakaera (batxilergoa)



Lurralde-eremua (batxilergoa)

Bilbo	Bizkaia	EAE
% 47,6	% 61,3	% 65,1

Beste hezkuntza-maila batzuk

	Bilbo	Bizkaia	EAE
Erdi-mailako LH	% 6,3	% 12,9	% 22,0
Goi-mailako LH	% 6,3	% 14,3	% 25,4

Bilbon matrikulatutako batxilergoko ikasleen ia erdiak D ereduan ikasten du. Ehunekoa Bizkaiko eta EAeko batez bestekoak baino nabarmen txikiagoa da, nahiz eta azken 3 urteetan nabarmen hazi den.

D eredua askoz gutxiago ematen da erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketetan, eta ez da aldaketarik sumatu azken urteetan.


3. Euskararen erabilera lagunartean

Definizioa: egunerokoan lagunartean euskaraz hitz egiten duten 16-24 urteko gazteak. 2016. urtea, Bizkaia. Sexuaren araberako analisia EAEkoa da.




% 22

Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 22	% 35,3

Bizkaiko gazteen % 22k euskaraz egiten du lagunekin egunerokoan, eta datu hori EAEkoa baino 13 puntu txikiagoa da (% 35,3). Eboluzioak ez du erakusten erabileraren gorakada esanguratsurik aztertutako azken 10 urteetan.

Emakumeek gehiago erabiltzen dute euskara gizonek baino eguneroko elkarrizketetan.



3.3 IRAUNKORTASUNA ETA INGURUMENA


1. Gazteria ekologista

Definizioa: beren burua ekologistatzat duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2020. urtea, EAE.




% 76,7

Bizi-zikloa



Sexuak



Euskadiko gazte gehienek ekologistatzat dute beren burua.

Adinaren arabera, adin-tarte gazteenak ditu sentsibilizazio-datu baxuenak.

Sexuen arabera, gizonak emakumeak baino 4 puntu beherago daude.


2. Kontsumo iraunkorra

Definizioa: kontsumo jasangarriaren indizea kalkulatzeko, aztertutako bost jarretatik lau erabili ohi dira: erosketak egitean norberaren poltsa edo orga eramatea, gutxi ontziratutako edo gutxi paketatutako produktuak erosten saiatzea, etxeko zaborra hondakin-motaren arabera bereiztea, uraren kontsumoa mugatzen saiatzea eta, azkenik, garraio publikoa edo kolektiboa erabiltzea edo autoa partekatzea. 2021. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 40,7


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 40,7	% 41,8

Gazteen % 41ek kontsumo jasangarria egiten du. Gazte helduenek (25-29) eta emakumeek hartzen dute gehien kontuan zer ingurumen-inpaktu duen kontsumitzen dituzten produktuek.

Kontsumo jasangarria goranzko joera bat da, bikoiztu egin baita modu jasangarria kontsumitzen duten gazteen kopurua 2012 eta 2021 artean.


3. Garraio publikoaren erabilera

Definizioa: garraio publikoa erabili ohi duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2021. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 66,8


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 66,8	% 59,3

Gazteen % 66,8k egunero erabiltzen du garraio publikoa.

Adin-tarteen arabera, adin-tarte gazteena da garraio publikoa gutxien erabiltzen duena, eta sexuen arabera, emakumeek gizonak baino erregularutasun handiagoz erabiltzen dute garraio publikoa.

Hazkunde esanguratsua ikus daiteke 2016 eta 2021 urteen artean.


4. Bizikletaren erabilera

Definizioa: bizikleta garraiobide gisa erabiltzen duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa (egunero edo ia egunero). 2021. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 14,6


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 14,6	% 23,8

Gazteen % 15ek bizikleta egunero erabiltzen du joan-etorrietarako.

Gizonak dira modalitate hori gehien erabiltzen dutenak.

Bilakaerak erakusten du bizikleta gero eta gehiago erabiltzen dela joan-etorrietarako, baina datua EAEkoa baino txikiagoa da oraindik.



3.4 KULTURA-ANIZTASUNA


1. Intolerantzia ideologikoa

Definizioa: 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, ideia, sinesmen edo balio desberdinak dituztenekin oso gustura edo nahiko gustura ez dauden gazteen ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 26,7


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 26,7	% 24,9

Gazteen % 26,7 ez da oso tolerantzia ideologia edo sinesmen desberdinetako pertsonekin. Emakumeek gizonek baino jarrera itxiagoa dute. Intolerantzia 12 puntu igo da 2016tik 2020ra.


2. Atzerritar gehiegi daudela pentsatzea

Definizioa: Euskadin atzerritar gehiegi bizi direla uste duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 10,3

Bizi-zikloa



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
10,3	% 9,1

Gazteen % 10,3k soilik uste du atzerritar gehiegi daudela EAEn. Tolerantzia gero eta handiagoa da, 2012-2020 aldian ikus daitekeen bezala.


3. Etorkinak sartzeari uko egitea

Definizioa: langile etorkinen sarrera debekatzearen alde dauden 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 0,3


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 0,3	% 0,5

Etorkinak sartzeari uko egiten dioten gazteak murriztu egin dira, eta ehunekoa oso txikia da.



3.5 BOLUNTARIOTZA ETA PARTE-HARTZEA


1. Elkarteren bateko kide diren gazteak

Definizioa: elkarteren bateko kide diren 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2021. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 39,8


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 39,8	% 43,9

Elkarte bateko kide diren gazteen tasa % 39,8koa da. Datua nabarmen handiagoa da adin-tarte gazteenaren (15-19 urte) eta gizonen artean; gizonen tasa 6 puntu handiagoa da emakumeena baino. Bilakaerari dagokionez, jaitsiera txiki bat nabari da 2016 eta 2021 urteen artean.


2. Boluntariotza egiten duten gazteak

Definizioa: boluntariotza-lanak egiten dituzten 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2021. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 11,4


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 11,4	% 11,5

Boluntariotzan aritzen diren gazteen tasa % 11,4koa da. Jarduera hori handiagoa da 20-24 adin-tartean eta emakumeen artean.

Bilakaerari dagokionez, jaitsiera txiki bat nabari da 2016 eta 2021 urteen artean.


3. Gizartea aldatzeko nahia

Definizioa: bai sakoneko erreformen bidez, bai erabateko aldatetaren bidez egungo gizarte-eredua aldatu nahi duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 73,3


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 73,3	% 74

Gazteen artean, gizartea aldatzea nahi dutenen tasa % 73,3koa da, eta behera egin du azken lau urteetan. Emakumeek gizonak baino aldaketa-eskaera handiagoa dute.


4. Gai publikoetan parte hartzeko nahia

Definizioa: gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 55,3


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 55,3	% 55,1

Gazteen erdiak baino gehiagok aktiboki parte hartu nahi du gai publikoetan. Nabarmentzekoa da emakumeen (% 60,3) eta gizonen (% 50,2) arteko aldea. Bilakaerari dagokionez, 9 puntuko igoera izan da 2016 eta 2020 artean.


5. Politikarekiko interesa

Definizioa: politikarekiko interes handia edo nahikoa duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2020. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloari eta sexuari buruzko datuak EAEkoak dira.




% 51,7


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 51,7	% 51,4


Gazteen erdiek interes handia edo nahikoa dute politikarekiko, batez ere gizonen kasuan. Nabarmentzekoa da azken hamarkadan izandako gorakada.

6. Hauteskunde-deialdietan parte hartzea

Definizioa: azken 3 urteetan hauteskunde-deialdiaren batean botoa eman duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa. 2021. urtea, EAE.



% 85,7



Gazteen ia 3 laurdenek hauteskunde-deialdiaren batean parte hartzen dute 3 urtean behin. Kolektibo gazteena da gutxien parte hartzen duena, kolektibo horren zati batek oraindik ez baitu boto-eskubiderik.

Parte-hartzea gero eta handiagoa da, eta bat dator arestian aipatutako politikarekiko interesa handitzearekin.


7. Alderdi politikoekiko hurbiltasuna

Definizioa: alderdi politikoren batetik oso, nahiko edo zertxobait hurbil dauden 18-29 urteko gazteen ehunekoa. 2019. urtea, EAE. Datu nagusia Bizkaikoa da, eta gainerako analisiak EAEkoak dira.




% 28


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 28	% 27

Lau pertsonatik bat bakarrik hautematen da alderdi politiko batetik hurbil, eta urruntze hori handitu egiten da adinarekin batera. Gizonak emakumeak baino hurbilago daude alderdiren batekiko.


8. Udalekiko konfiantza

Definizioa: 2019. urtean, EAEn udalean konfiantza izateko joera duten 18 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa. Datu nagusia Bizkaikoa da, gainerako analisia EAEkoa.




% 74


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 74	% 74



Gazteen % 75ek konfiantza du bere udalarengan. Emakumeen kasuan, ehunekoa % 77ra igotzen da. Bilakaera ikusita, azken hamarkadan tokiko erakundeeziko konfiantza handitzen ari dela ikus dezakegu.

9. Zerbitzu publikoen balorazioa

Definizioa: Euskadiko zerbitzu publikoak oso onak edo nahiko onak direla uste duten 18-29 urteko pertsonen ehunekoa. 2019. urtea, Bizkaia. Bizi-zikloaren eta sexuaren arabera segmentazioa EAEkoa da.



% 95



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 95	% 94

Euskal zerbitzu publikoak oso ontzat edo nahiko ontzat jotzen dituzten gazteen ehunekoa % 95 da. Bizi-zikloari dagokionez, datuak berdinak dira eta emakumeen eta gizonen arteko aldea ia ez da hautematen.


10. Udalek gazteriaren inguruan egiten duten lanari buruzko balorazioa

Definizioa: Udalen nota, Orik 10era bitarteko eskalan, gazteriaren inguruan egiten duten lanari dagokionez. 2020. urtea, Bizkaia. Datu nagusia izan ezik, gainerako analisiak EAEkoak dira.




6,1


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
6,1	6

Bizkaiko gazteek onartu egiten dituzte udalak gazteen esku-hartzeetan, baina gogo handirik gabe. Gogobetetze-mailak behera egin du adinarekin, eta, beraz, 15 eta 19 urte bitartekoek eman dute nota handiena.

Bilakaera horrek argi eta garbi erakusten du udalek gazterian duten irudia hobetu egin dela; izan ere, 2008an 4,6ko nota lortu zuten, eta, gaur egun, 6ko nota dute.


11. Europar Batasunarekiko konfiantza

Definizioa: EBn konfiantza izateko joera duten 18 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa. 2019. urtea, EAE. Datu nagusia Bizkaikoa da, gainerako analisia EAEkoa.




% 59


Bizi-zikloa



Sexuak



Bilakaera



Lurralde-eremua

Bizkaia	EAE
% 59	% 63

Bizkaiko gazteen % 59k konfiantza du Europar Batasunean; datu hori EAEkoa baino apur bat baxuagoa da. Adin-tarterik gazteenak konfiantza handiagoa du, bai eta emakumeek ere.

Bilakaerak erakusten du 2006tik konfiantza etengabe handitu dela.

1. eranskina

Datuak auzoen arabera

